

Guri porruak sartu nahi

Deia, 1983-06-20.

Ba dira barazkiak eta *barazkiak*: batzu jatekoak dira, besteak ez; batzu hazitan ereiten dira, besteak landare moduan sartzen lurlean. Azken horietakoa duzu porrua: sartzen dena eta irentsigaitz gertatzen dena.

Porru mota hau dut nik orain gogoan.

Politikan, politikakeria batzuetan behintzat, nahasmenetan sartzen gaituzte. Hemen gaude une honetan. Euskalerrian, auzokoak gure baratzean gauez eta maina txarrez aldatu dizkiguten porru batzu berez ez hartu zain; ez baititugu behar eta nahi. Hala ere, hor dihardute, eta orain egun argiz ere, ikusten ez bagenitu bezala, gure protestei entzungo.

Eta dena, gure onerako behar ez ditugun porruak luzatu et gizendu daitezen: LOAPA dela, ZEN dela.

Maitasunak ba ditu ustegabeko fintasun ukigarriak!: iragarkia, anuntzioa, ere ordaindu dute egunkari guztietan guk nahi ez dugun ZEN delakoaren propagandarako: *"El plan "ZEN" no es más que un plan piloto para la seguridad ciudadana de Euskalherria"*. Ikus dezakezun bezala, hau dena gure segurtasunerako egina da, inork gure baratzean honelako porrurik sartzea nahi ez badugu ere! Ustegabean, maite zaituen norbaitek (andregai ba zine, hutsa!) bihotzak eraginda eskeintzen dizun erregalia dirudi. Zuk onerako den edo ez den jakin behar zenuke, ba!, baina ez, Francok geuri komeni zitzaiguna berez zekien gisa, sozialistak ere ba dakite, jakin, gure beharrak eta nahiak inbutu beretik pasatzen direla. Porru hau gure baratzean sartu, Santiago armatuari egindako errogatibak ekarritako ur bedeinkatuaz busti eta presupuesto handiko eguzkiaren zain daude, porruak bezala lau eskualdeko Hego-Euskalerra hau (azkenik!) poliziaz eta txibatoz hornitzeko.

LOAPA-ko porrua ere gauza bera.

Esan dugu, guk ez dugula honelako porrurik jaten, ez digula gurea den urdail delikatuan onik egiten; kexatu ere egin gara; baina honen propagandarekin erantzun digute. Hala ere, gu sinesgogorrek garenez, ez dugu Espainia bertako lege barrutian eta espainolez idatzia dagoen paper sakratuetan aitortu zizkiguten gure eskubiderik orain galdu nahi.

Gero, alderantzikatu dugun zerbaitekin saiatu gara, ea asmatzen dugun:

Euskal Legebiltzarrak, alderdi guztiek batera eta PSOE-koak tarteko direla, Euskararen Legea egin dugu, gure herriarentzat ona delakoan; eta ez!; gure auzokoak ez dute uste, eta errekurtsio baten porrua, hirugarrena!, aldatu digute gure baratzean.

Gureak nahiko ez bagenitu bezala!